

ALEMANETIK EUSKARATUTAKO HAUR- ETA GAZTE- LITERATURA: ZUZENeko NAHIZ ZEHARKAKO ITZULPENEN AZTERKETA CORPUS BATEN BIDEZ

Tesiaren egilea: Naroa Zubillaga Gomez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Ibon Uribarri Zenekorta

Tesiaren laburpena:

Lan honek alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura (HGL) du aztergai; bi ikergai batzen ditu, beraz: HGLaren generoa, batetik, eta alemana/euskara hizkuntza-konbinazioa, bestetik. Arreta berezia eskaini zaio zuzeneko itzulpenen eta zeharkakoaren artean egon daitekeen aldea aztertzeari. Izan ere, euskararako itzulpenak zeharka egin izan dira askotan, hau da, gaztelania zubi-hizkuntza gisa erabilia. Lanaren egitura orokorra laburtzearen, hona, oro har, atalez atal landutakoa.

Aurreneko atalean, itzulpen-ikasketen bilakaerari erreparatu diogu, itzulpen-ikasketa deskribatzaileei arreta berezia eskainiz, horiek izan baititugu helduleku gure lanean. Bigarren atalean, HGLaren generoa eta haren ezaugarriak aztertu ditugu. Ondoren, hirugarren atalean, xede-sistema eta sorburu-sistema deskribatu ditugu ahalik eta xeheen, hau da, HGL alemana eta euskal HGLa. Laugarren atalean, aurreko ataletan landutakoa uztartu dugu, eta, hala, HGLaren itzulpenaren inguruko teoria nagusiak aurkeztu ditugu. Ondoren, bosgarren atalean, lan hau egiteko erabilitako metodologia aurkeztu dugu, eta, hurrengo ataletan, alderdi praktikoagoei ekin diegu.

Izan ere, lana egiteko, katalogo bat osatu dugu, alemanetik euskaratu diren haur- eta gazte-literaturako lanak bildu nahian, eta katalogo horretatik eta betiere irizpide jakin batzuen arabera, corpus bat aukeratu dugu. 33 lanen itzulpenak kontuan hartzen dituen corpus digitala osatu dugu, hiru bertsio kontuan hartzen dituen (zuzeneko itzulpenen kasuan, alemanezko eta euskarazko bertsioak kontuan hartuz, eta, zeharkako itzulpenen kasuan, alemanezko, gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak kontuan hartuz). Corpusaren eta hari lotutako bilatzailearen bidez, azterketa zehatza egin ahal izan dugu, zuzenean eta zeharka egindako itzulpenen arteko aldea aztertzeko.

Seigarren atalean egin dugu katalogoaren eta hartatik ateratako ondorioen deskribapena, eta, zazpigarren atalean, corpusaren osaera azaldu dugu.

Zortzigarren atalean, corpuseko lanetako paratestuen eta makrotestuaren azterketa egin dugu. Ondoren, bederatzigarren atalean, corpusaren mikrotestuaren azterketa egin dugu: iseken eta madarikazioen itzulpena eta *ja* nahiz *eben/halt*

moduzko partikula alemanen itzulpena. Ezaugarri horiek aztertuta, euskal HGL itzuliaren elkarrizketa fikzionatua ikertzeko saiakera bat egin dugu.

Ikerketa honek erakutsi digunez, zuzeneko eta zeharkako itzulpenen arteko muga lausoa da askotan, euskal itzultzaileak maiz jotzen duelako zeharkakotasunera, baita ustez zuzenean itzultzen ari denean ere. Bestalde, HGLaren erregistro ez-formalari dagozkion elementuak itzultzeak hainbat arazo sortzen dituela ikusi dugu, bereziki, euskara bezalako hizkuntza gutxitu batera egindako itzulpenen kasuan.